

#### 4. ariketa

Aztertu albistea eta idatzi irakurgaiari buruz zein iritzi duzun.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeak azterlan bat egin du Bartzelona, Bilbo, Granada, Madril, Valentzia eta Valladolid hirietan. Azterketa horretan, nerabe-talde bat hainbat establezimendutara joan da (taberna, supermerkatu eta janari lasterreko establezimenduetara). Bisitatutako taberna eta kafetegietan adingabeei alkohola saldu zieten

"EL PAÍS EGUNKARIA, OSTEKUNA, 2009KO MARTXOAREN 26A".

GIZARTEA

Álvarok 16 urte bete behar ditu laster, eta Andaluziako hiri batean bizi da; bertan, debekatuta dago adingabeei alkohola saltzea. Hilean pare bat aldiz, hark eta haren lagunek, 15 eta 16 urte bitartekoek, litroak egiten dituzte, normalean vodkarekin edo ginebrarekin "nagusiena ematen duenak erosten du, ia beti elikagaien denda batean; baina sekula ez gazteenak. Álvaro-ren esperientzia herrialde osoan gertatzen denaren isla da. Nahiz eta autonomia-erkidegoetako legeek duela bi hamarkada debekatu zuten adingabeek kontsumitzea (lehen gutxieneko adina 14 urte ziren), egia esan establezimendurik gehienek jarraitzen dute nori saltzen dioten kontrolatu gabe. 2006ko droga-kontsumoei buruzko eskolako inkestaren arabera, %58k azken hilabetean alkohola edan zuen (2004an baino %7 gutxiagok).

Atzo Kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeak aurkeztutako azterlan batek adierazten du adingabeek alkohola arazorik gabe eskuratzen dutela lautik hiru aldiz.

15 eta 17 urteko bitarteko sei mutilen esperientziaren bidez egin zen azterlana, sei hiritan eta 123 establezimendutan; establezimendu horietara 223 bisita egin ziren, garagardoa eta whiskya erosteko ahalegina egin zuten. Bartzelonako, Bilboko, Granadako, Madrilgo, Valentziako eta Valladolideko lagun baten bidez eskuratutako datuak hauek dira: garagardoa, graduazio gutxiagokoa, eskuragarria da kasuen %81ean, whiskya baino pixka bat gehiago, egindako ahaleginetatik %67k lortu baitzuten

Alkohola eskuragarrien izan zuten hiriak Bartzelona, Valentzia eta Granada izan ziren; bertan, gazteek kasuen %90etik gora garagardoa erosi zuten eta whiskya ia proportzio berean. Bilbon, Madrilan eta Valladoliden pixka bat zailago izan zuten. Whiskya bisitatu zituzten lekuen %50 baino gutxiagok saldu zieten, eta garagardoa 10 lekutatik zazpitan.

Alkoholaren salmentari buruzko legeria autonomia-erkidegoen arabera da. Guztiek debekatzen dute 18 urtetik beherakoei alkohola saltzea, Asturiasen izan ezik, gutxieneko adina 16 urteko mugan baitu ezarrita eta Galiziak 16 urteko mugan 18 gradutik beherako edarien kasuan. 2006an, gobernuak legearen aurreproiektua onetsi zuen, adingabeengan alkohol-kontsumoa prebenitzeko, baina porrot egin zuen, sektoreek "ardoaren aurkako lege" gisa kalifikatutako kritikengatik. Aurreproiektuak ez zituen aldatzen salmenta-aukerak, baina publizitateari dagokionez murrizketa ugari aurreikusten zituen; garraio publikoetan, adingabeei bideratutako lekuetan edo ikastetxeetatik hurbil dauden gunetan debekatzea aurreikusten zuen. Alkohola, gainera, ezin zuten ez kirolariek ez pertsona famatuak iragarri.

Arauk, nolahi ere, argiak dira, nerabeek alkohola eskuragarri ez izateko.

(...)

(...)

Martak, gutxienez aisiarako hiru establezimendutan lan egin duen tabernariak, dio adina galdetzea ez dela ohikoena: «aurpegiaren arabera, batzuetan txartela eskatzen nuen, baina gainerakoek ez zuten egiten; aitzakiatzat jartzen dute txartela atean eskatu dietela, baina askotan hori ez da horrela izaten».

Valentziako Ostalarien Federazioak polizia-presentzia urria salatzen du, «lokaletan ez ezik, aisia-gune guztietan ere; erabateko hutsunea dago».

Parranda egiteko guneetako tabernak dira, azterketaren arabera, adingabeei oztopo gehien jartzen dietenak. Garagardoa eskuratzea errazagoa da 24 ordu zabalik dauden dendetan, baina baita supermerkatuetan eta janari lasterreko lokaletan ere; whiskya eskuragarri dago, batez ere, bazar eta supermerkatuetan.

«Gau osoan kaleetatik garagardo-latak saltzen, euro batean, inolako zigorrik jaso gabe dabilzanekin egin behar dute indarra» dio Vicente Pizcuetak, droga-menpekotasunak prebenitzeko Controla Club GKEko buruak.

Madril, azterlanaren arabera, adingabeei alkohol gutxien saltzen dien hiria da; halaber, autonomia-erkidego hori "litroen aurkako legea"ren aitzindaria da. 2002an debekatu egin zuen alkohol-kontsumoa kalean. Gero, Andaluziak, Extremadurak, Gaztela eta Leonek, Valentziako Erkidegoak eta Balear Uharteek gauza bera egin zuten, baina beste ezaugarri batzuekin. Extremadura eta Andaluzia pixka bat malguagoak dira; izan ere, hiriguneetatik kanpoko espazioak daude litroak egiteko eta, beraz, legearen funtzionamendurako beste urritasun batzuk daude.